

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Espainol



ARITZ GALARRAGA

Haurtzaroaz gauza batzuk gogoratzen ditut –asko-asko ere ez, egia esan, eta damu izan naiz batzuetan; beste batzuetan ez, eta pentsatu dut haurtzaroa asmatzeko aukera neukakeela hartara-. Baina gogoratzen dudan gauzen artean dago bat: etengabe elkar iraintzen genuela, irainak ahotik ahora ibiltzen zirela, normalizatuta zegoela irainen bidez hitz egitea –eta, bide batez, ze jarrera matxitoa-. Ez ditugu hemen berrituko haur garaiko loreak, belarrirentzako poesia zirenak. Baina denborarekin konturatu naiz bazegoela bat bereziki iraingarria zena, irain mingarrien zerrendan lehen postuetan zegoena: “Espainol”. Ezen, baiki, “espainol” izenlaguna irain gisa erabiltzen genuen, eta ez zen suabeena: “*Calla, español*”, “*déjame en paz, español*” edo “*vete a tu casa, español*”, lasai asko esaten genituen, noski espainol ederrean.

Nik, aldiz, urkulluz eta satisfazioz esan dezaket euskara, gaztelania, katalana eta galegoa ezagutzen ditudala, are bizitza proiektu gisa ulertzen dudala lau hizkuntza horiek jakin, kulti-batu, erabiltzea, eta beraz espainol erabatekoa naizela. Gabriel Arestik Tomas Meaberi eskainitako poemari kasu egiten badiogu, behintzat: “*Cierra los ojos muy suave, / Meabe, / pestaña contra pestaña. / Sólo es español quien sabe, / Meabe, / las cuatro lenguas de España*”. Gaur egun espainol deituko balidate, beraz, eta haurtzaroan ez bezala, segur aski, ez nuke ezer berezirik sentituko. Vasco modu iraingarri batean deituko balidate bezala, bide batez. Bost axola. Ez didate halako gaiek loa galarazten. Gainera, barre egingo duzue –barre egiteko esango baitut-, baina bokazioz europeista naiz.

Zentzu horretan, Portoko alkateak berriki Espainia eta Portugal batzearen ideia jarri du berriz mahai gainean, ideia bikaina, inondik inora. Bien bitartean, iruditzen zait itsusia dela elkar iraintzen ibiltzea, are helduaroa erdietsi duen gizartetzat badugu geure burua. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

“KULTURA SAILBURU, EZ DUGU ULERTZEN ZER PROPOSATZEN DUZUN”

TEKNIKARIOK, IKUSKIZUNETAKO TEKNIKARIEN SINDIKATUA

Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako bozeramaile eta Kultura sailburuak adierazi zuen ez duela uste kulturak erantzun berezirik behar duenik krisi honen aurrean. Kulturgintzako langile askoren artean hautsak harrotu dituzte hitzok. “Elkarrizketa horretan gure sektorea mespretxatzen du, gu desberdinak sentitzen garela esanez, gure diru ekarpena ukiezina dela ziurtatuz eta gizarteari sektorearen ikuspegi oso distorsionatua emanez, adibidez, aretoak alkohol-kontsumoarekin lotuz”. 2020/10/28

